

*Ongi etorri
Zaldibira!*

ETORRI BERRIENTZAKO GIDA



ZALDIBIAKO
UDALA



ZALDIBIAKO
UDALA

Santa Fe Kalea 18
ZALDIBIA Gipuzkoa (Euskal Herria)

Tel. (0034) 943 88 03 57
bulegoa@zaldibia.eus

www.zaldibia.eus



*Zaldibira zaitugu
etorri berria
Gurea daukaguna
ta zuk ekarria
denon arten eraikiz
denentzat herria
Jaso gure agur ta
Ongi etorria!*

Aurkibidea

1. ONGI ETORRI ZALDIBIRA!	5
2. ZALDIBIAKO ZERBITZUEN GIDA	6
a. Zerbitzu publikoak	6
I. Udal-zerbitzuak	6
II. Osasuna	13
III. Hezkuntza	14
IV. Garraio publikoa	15
b. Gainerako zerbitzuak	15
I. Herriko merkataritza	15
II. Herriko ostalaritza	15
III. Herriko zerbitzuak	15
3. INFORMAZIO OROKORRA	17
a. Herriguneko mapa	17
b. Zaldibia datuetan	18
c. Zaldibiako jaiak eta ospakizunak	20
d. Zaldibia eta gure balioak	26
I. Demokrazia eta partaidetza	26
II. Herriko taldeak eta elkarteak	28
III. Zaldibia euskalduna	29
IV. Zaldibia, aniztasunean parekide	30
V. Ingurune naturala zaintzen duen udalerria	31
VI. Zaldibia eta Auzolana: gurea berreskuratzen	32
VII. Zaldibia Herri Hezitzaile izateko lanean	33
4. AZKEN HITZA	34



Ongi etorri

Kaixo, herritar hori!

Zaldibiako Udalaren izenean, ongi etorri beroena eskaini nahi dizugu. Zaldibia udalerrri txikia izan arren, anitza da, eta hainbat dira bertatik bertara eskura izango dituzun zerbitzuak eta azpiegiturak.

Herrian dauzkagun baliabideak eta zerbitzuak zuri gerturatzeko asmoz, esku artean duzun gida txiki hau prestatu dugu. Zaldibian murgiltzen hasteko tresna baliagarria izango zaizulakoan gaude.

Ongi etorri Zaldibira!

2. *Zerbitzuen gida*

Zerbitzu publikoak

UDAL ZERBITZUAK

■ UDALETXEA

Santa Fe kalea, 18

☎ 943 88 03 57

www.zaldibia.eus



• ADMINISTRAZIO OROKORRA ERREGISTROA ETA ARRETA

1. solairua

☎ 943 88 03 57

bulegoa@zaldibia.eus



Harrera Orokorrak gainera, fax- eta fotokopia-zerbitzua, Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza daude bertan. Adibidez, erroldatzea bertan egiten da.

• GIZARTE ONGIZATE ZERBITZUA

2. solairua

☎ 943 88 20 00

gizarte@zaldibia.eus

Harrera eta gizarte langilea. Hitzordua eskatu behar da aurretik, telefonoz edo e-mail bidez.

- **HIRIGINTZA TEKNIKARIA**

2. solairua

☎ 943 88 03 57

arkitektoa@zaldibia.eus

Hirigintza-arloko kontsultak. Hitzordua eskatu behar da aurretik, telefonoz edo e-mail bidez.

- **BERDINTASUN TEKNIKARIA**

2. solairua

☎ 943 88 03 57

berdintasuna@zaldibia.eus

Berdintasun-zerbitzua eta kontsultak. Hitzordua eskatu behar da aurretik, telefonoz edo e-mail bidez.

- **HILERRIKO ZERBITZUA**

Ehorzketa-zerbitzua

Lanegunetan, Udalean: ☎ 943 88 03 57

Asteburuetan eta jaiegunetan: ☎ 635 71 71 50

- **HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA**

Sasieta Mankomunitatea

☎ 943 16 15 55

info@sasieta.eus

Herrigunean atez ateko bilketa-sistema erabiltzen da; landa eremuan, hondakin-etxolak.

Informazio gehiago, Harrera bulegoan.

- **BETI GAZTE OSTATUA-BULEGOA**

Beheko solairua

Herriko adinekoen Elkartearen bulegoa eta Ostatu-zerbitzua.



■ KARREANE KULTUR ETXEA

Santa Fe kalea 24, Karreane Eraikina

☎ 943 16 03 38


kulturetxea@zaldibia.eus



- KULTURA, EUSKARA ETA KIROL ZERBITZUAK
- UDAL LIBURUTEGI ZERBITZUA



- WIFI ZERBITZUA
- KZ GUNEA SARE PUBLIKOA
- EUSKARA IKASTAROAK



■ KIMUENE KULTURGUNEA

Artxanberri kalea, 1

Informazioa eta erabilera-eskaerak, Karreane Kultur Etxean.



- ERABILERA ANITZEKO GELAK
- LUDOTEKA 0-6 URTE
- MUSIKA ESKOLA
- BERTSO ESKOLA
- DANTZA ESKOLA



■ BESTELAKO AZPIEGITURA PUBLIKOAK

- HERRIKO PLAZA



- TOKI-ALAI PILOTALEKUA, irekia



- RESTI PILOTALEKUA, estalia



- KIROL ZELAIA



- OLALDEKO PARKEA ETA OSASUN ZIRKUITOA



- HAUR PARKEAK



- UDAL ARETO NAGUSIA



- UDAL ARETO BALIOANITZA



- UDAL ARTXIBOA



- UDAL BILTEGI NAGUSIA



- HERRI ANTZOKIA



- GIMNASIOA



- GAZTETXEA



- UR HORNIDURAREN INSTALAZIOAK



- HERRIMENDI PUBLIKOA



- HILERRIA



- GOIZANE - LANDA GARAPENA (GOIMEN)



OSASUNA



■ FAMILIA MEDIKUA

Astelehenetik ostiralera | 8:00 – 15:00

■ ERIZAINA

Astelehenetik ostiralera | 8:00 – 15:00

■ TXANDA HARTZEKO

☎ 943 00 76 35 (Ordiziako Osasun Zentroa)
8:00-17:00

■ ZALDIBIAKO FARMAZIA

(Aintzane Alberdi)

☎ 943 88 45 48

Astelehenetik ostiralera

9:00 – 13:00 | 16:30 – 20:00

Larunbatak: 9:00 – 13:00

■ GUARDIAKO FARMAZIA

Begiratu Zaldibiako farmaziaren atean guardiako farmazia non dagoen.

■ LARRIALDI ZERBITZUAK

Larrialdiak: 112

DYA: ☎ 943 46 46 22

Anbulantzia: ☎ 943 33 03 30

Genero indarkeriaren biktimei laguntzeko
telefonoa: ☎ 900 84 01 11

HEZKUNTZA

■ HAURRESKOLA

Santa Fe kalea, 46C

☎ 943 88 40 19

zaldibia@haurreskolak.eus

Astelehenetik ostiralera | 7:30 - 17:00

0-2 urteko haurrentzat.



■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Santa Fe kalea, 46A

☎ 943 88 42 51

zuzendaritza@lardizabal.eus

www.lardizabal.eus

Herri Eskola Publikoa

Haur Hezkuntza (2-5 urte)

Lehen Hezkuntza (6-12 urte)



■ ESKOLAREN BESTE ZERBITZU BATZUK

Zerbitzu guztiei buruzko informazioa, Lardizabal Herri Eskolan.

● ZAINITZA

Eskola-ordutegia hasi aurretik umeak ikastetxean utzi behar dituzten familientzat.

● ESKOLA KIROLA

6-16 urteko ikasleentzako kirol-jardueren programa.

- **JANGELA**

Bazkari-zerbitzua. Izena ematean, aukera daiteke ohiko edo noizbehinkako bazkalkide modalitateen artean.

- **GARRAIOA**

Eskolaren inguruan bizi ez diren ikasleak eskolara eramateko taxi-zerbitzua.

GARRAIO PUBLIKOA

■ AUTOBUS ZERBITZUA



■ LURRALDEBUS GO01-LINEA

☎ 900 30 03 40

www.lurraldebus.eus

Zaldibia > Ordizia > Beasain > Ihurre > Idiazabal > Segura > Zegama.

Ordutegiak Harrera-bulegoan edo Lurraldebusen webgunean.

■ TREN ZERBITZUA

Tren-geltokirik hurbilena Ordizian dago.

Ordutegiak Harrera-bulegoan edo RENFEren webgunean.

Gainerako zerbitzuak

HERRIKO MERKATARITZA

<https://zaldibia.eus/qr/merkataritza>



HERRIKO OSTALARITZA


<https://zaldibia.eus/qr/ostalaritza>



HERRIKO ZERBITZUAK

<https://zaldibia.eus/qr/zerbitzuak>





ZALDIBIA

HERRI GUNEKO ETXEBIZITZEN ZERRENDA

SANTA FE KALEA

- | | | | |
|-------|---------------------------|-------|-------------------------|
| 1 | Mendiondo | 40 | Albuetxeberri |
| 3 | Mendiondo | 44 | Presalde |
| 5 | Mendiondo | 46 | Exteberri |
| 7 | Oberena | 46A | Lardizabal herri eskola |
| 9 | Txindoki Ipe | 46B | Resti pilotalekua |
| 11 | Urbia | 48 | Lizanzabal |
| 13 | Goiz Eguzki | 50 | Arretxea |
| 15 | Danak Bat | 52 | Konfiteri |
| 17 | Zubiondo | 54 | Barandiaran 1 |
| 19 | Irazustabarrena | 56 | Barandiaran 2 |
| 19A | Argarbi | 58 | Esribau |
| 21A | Itoiz | 60 | Aztriagaberri |
| | Osasun kontsulta/Gaztebea | 62 | Luberri |
| 21B-S | Ostaturu | 64 | Errementarigokoa |
| 23 | Txindoki 3 | 66 | Aztriaga |
| 25 | Txindoki 2 | 68 | Goikoetxea |
| 27 | Txindoki 1 | 70 | Ibalondo |
| 29 | Estanko | 72 | Ibalondo |
| 31 | Errementari | 74A | Ibalondo |
| 33 | Errementari | 74B-D | Iuska |
| 35 | Lekueder 4 | 74E-F | Bikoltz |
| 37 | Lekueder 3 | 74G-H | Artizar |
| 39 | Lekueder 2 | 76 | Narriari 2 |
| 41 | Lekueder 1 | 78 | Narriari 1 |
| 43 | Maraundi-Ibaigain | 80 | Bidegain |
| 45 | Arrese | 82 | Nazabalenea |
| 47 | Iurritza | 84 | Bidearte |
| 49 | Zubimusu | 86 | Eloseginea-Txamarete |
| 51 | Blurrife | 88 | Izutueta-Kapagindegia |
| 53 | Txapeleixe | 90 | Izutuetaberri |
| 55 | Bikarioetxe | 92 | Etxabenea |
| 57 | Ostadar | 96 | Gaztainadi |
| 59 | Ostadar | 98 | Gaztainadi |
| 61 | Ostadar | | |
| 63 | Ostadar | | |

Herriguneko mapa


Zaldibia datuetan





Zaldibia Euskal Herriaren erdigunean kokatuta dago, Gipuzkoako Goierri eskualdean. Aralar mendilerroaren oinetan, Amundarain eta Urtsubi erreken ertzetan bizi gara.

Udal-barrutiak estuki uztartzen ditu ingurune landatarra eta hiritarra. Biztanle gehienak herri-gunean bizi badira ere, landa-eremuan base-ri ugari daude, hainbat auzunetan sakabana-tuta: Elbarrena, Arruegi, Urreta, Urtsu-Erreka, Olaeta, Egilegor eta Aiestaran-Erreka, baita Urtesabel auzunea ere.


Zaldibian 1.630 herritar bizi gara gaur egun, azken urteetako bilakaerak gorantz egin duela-rik. Udal-erriak 16,2 km²-ko azalera du eta biz-tanleria-dentsitatea 97,9 biz/km²-koa da (2019).




Adin-tarteen eta sexuaren arabera, honako hau da biztanleriaren banaketa:



Zaldibitarren jaiolekuari dagokionez, hona hemen 2001ean eta 2019an bildutako datuak: alde batetik, Zaldibian edo Gipuzkoako beste udalerri batean jaiotakoak; bestetik, Gipuzkoatik kanpo jaiotakoak.



Azkenik, zaldibitarren euskara-ezagutzari buruzko datuak:



Zaldibiako jaiak eta ospakizunak

OTSAILA

SANTA AGEDA BEZPERA: etxez etxe koplak kantatzeko eguna.



INAUTERIAK: mozorrotu eta ikuskizuna eskaini ohi dute herriko txikieneek.



MARTXOA

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA: martxoak 8, herriko emakumeek eta talde feminista antolatuta.



APIRILA

ABERRI EGUNA: Euskal Aberriaren eguna, Pazko Igandez ospatzen da.



SATURDI AUZOKO FESTA: Pazko astelehenez, festa egiten da San Saturnino (Saturdi) Ermitaren inguruan, Urreta auzoan.



KORRIKA: AEK-k euskararen alde bi urtetik behin herriz herri antolatzen duen ekimena.



DANTZARI TXIKI EGUNA: Iztueta Dantza Taldeak urtero martxo/apiriletan antolatzen duen egun osoko festa, inguruko dantza taldeak gonbidatuta.



MAIATZA

LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA: maiatzak 1.



ARALARKO LARREEN IREKIERA: maiatzak 1.
Aralarrera igotzen diren artzain eta ganaduzaleen festa, Larraitzen.



BASERRITARREN EGUNA: maiatzak 15. Herriko baserritarrek mahai inguruan ospatzen dute eguna.



EKAINA

Ikasturte amaierako JAIALDIAK, eskolan eta eskolaz kanpoko beste zerbitzuetan.



ALAMARTXO GAUA: ekainak 23. 'Alamartxo' egin eta suaren bueltan udako solstizioa ospatzeko gaua.



UZTAILA

ZALDIBIAKO GAZTE FESTAK: Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatu ohi dituen festak.



UDAKO JARDUERAK: 2-14 urteko haur eta gaztetxoentzat prestatutako udako aisialdi-programa.



TXAMARRETXE AUZOKO FESTA: Goiko kaleko auzoko bizilagunek antolatutako festa.



IRAILA

JUBILATUEN EGUNA: Beti Gazte Elkarteak urteko ekintza-programaren barruan ospatzen duen eguna.



URRIA

ZALDIBIAKO FESTAK: herriko jai nagusiak, Santa Fe egunaren (urriak 6) inguruan ospatzen direnak.



ARDIKI EGUNA: herriaren artzaintza-tradizioari eutsiz, ardikiari eta mondejuari gorazarre egiten dion festa, lehiaketa eta salmenta-postuekin.



AZAROA

**EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA:**
azaroak 25.

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ



ABENDUA

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA: abenduaren 3an, gure herriaren egunerokoan nagusi dugun hizkuntzaren eguna ospatzen dugu.



NEGUKO SOLSTIZIOA: neguaren etorrerarekin bat, etxez etxeko kantu eskea, Olentzeroren etorrera eta urte berriaren hasiera ospatzeko ekin-tzak.



Zaldibia eta gure balioak

1. DEMOKRAZIA ETA PARTAIDETZA:

Udal-hauteskundeak lau urtez behin egiten dira eta bozketaren emaitzen arabera eratzen da bederatzi zinegotzik osatzen duten Udalbatza, bozketara aurkeztutako alderdi edo talde politikoek ordezkaritza. Udal-ordezkariek Osoko Bilkurak egiten dituzte hainbat gairen inguruan erabakiak hartzeko.

Gaiak aurretiaz lantzeko, batzordeen eta lan-arloko bilerak edo Herri Batzarrak egiten dira. Batzordeak herritarrek, udal-ordezkariek eta sailetako udal-teknikariek osatzen dituzte. Batzordeetan parte hartzeko, deialdietara bertaratu, zinegotzi arduradunarengana jo edo Udalean izena eman behar da.

Batzordeko kideak aldatu badaitezke ere, batzordeen eta lan arloen egitura mantendu egin ohi da urtez urte.

■ HIRIGINTZA BATZORDEA

Herriko hirigintzaz eta hiri inguruneaz eztaba-
datu eta erabakiak hartzen diren batzordea.

■ KULTURA, EUSKARA ETA KIROL BATZORDEA

Kultura, euskara, kirola eta jaiak bezalako gaiak ikuspegi herrikoi batetik garatzeko eta erronka berriak asmatzeko eginkizuna duen batzordea.

■ INGURUMENA, LANDA GARAPENA ETA LEHEN SEKTOREAREN ARLOA

Lehen sektoreaz, baso eta mendiez, landa garapenaz eta ingurumenaren zaintzaz arduratzen den arloa.

■ BERDINTASUNA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA ANIZTASUN ARLOA

Parekidetasuna, heziketa, gazteria eta aniztasuna erdigunean jarriko dituen herria eraikitzeko lan egiten duen arloa. Bertatik sortu da eskuan duzun harrera gida hau, adibidez.

■ OBRAK, ZERBITZUAK ETA GIZARTE ONGIZATE ARLOA

Herritarren ongizatea helburu izanda, egunero-koan sortzen diren edozein motatako arazoak ahalik eta modurik egokienean gainditzeko lan egiten duen arloa.

Udalak bitarteko ugari erabiltzen ditu herritarrekiko komunikazioan: gutunak eta oharrrak herritarren postontzietan, etxe atarietako oharrrak, kaleko iragarki-taulak, Udal Harrera bulegoa, udalaren web orria (www.zaldibia.eus), Iturritik aldizkaria, Udal Aplikazioa (ZaldibiAPP) eta Udal informaziorako Whatsapp Kanala.

Herritarren partaidetzan sakontzen jarraitze-ko urratsak egiten dihardu Udalak. Partaidetza, herritarren eskubidea eta udalaren betebeharra izateaz gainera, zaldibitarrok uste dugu tresna eta bide egokia dela gizartearen beharrei erantzuteko, elkarri entzun eta erantzunez modu sistematizatu batean. Horrela, gure herritartasuna indartuko dugu eta Zaldibiaren parte sentituko gara indar handiagoz.



II. HERRI BIZIA: HERRIKO TALDEAK ETA ELKARTEAK

■ KIROLA

- ARETO-FUTBOLA
- GAILURRERANTZ MENDI ELKARTEA
- GAZTELUPE PILOTA KLUBA
- XAKE ZALDIBIA
- ZALDIBIAKO MENDI LASTERKETA
- ALMITZA SEGA ELKARTEA

■ KULTURA

- ARDIKI ELKARTEA
- ZABEL: ZALDIBIAKO BERTSOZALE ELKARTEA
- ZAPIAK BAT KULTUR ELKARTEA
- IZTUETA DANTZA TALDEA
- TXANBOLINTEROAK TALDEA
- XIRIKA KULTUR ELKARTEA
- IZTUETA KULTUR ELKARTEA

■ HEZKUNTZA

- AUSA GAZTELU GURASO ELKARTEA
- ZALDIBIA HERRI HEZITZAILEA

■ KULTUR ANIZTASUNA

- ETXEKONEKOAK ELKARTEA

■ ADINEKOAK

- BETI GAZTE ELKARTEA

■ POLITIKA – HERRI MUGIMENDUAK

- ASKE EMAKUME TALDEA
- ERNAI
- ZALDIBIAKO GAZTE ASANBLADA
- LIBRE
- ZALDIBIAKO GKS
- GURE ESKU DAGO
- SORTU ZALDIBIA
- EHBILDU ZALDIBIA
- ZALDIBIAKO EAJ-PNV
- ZALDIBIA ZERO ZABOR



III. ZALDIBIA EUSKALDUNA

Euskara gure herriko ama hizkuntza eta kale hizkuntza nagusia da. Gainera, Zaldibia, Euskal Herriko beste 85 udalerrirekin batera, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) partaide da erakunde horren sorreratik beretik, eta gure hizkuntza sustatzeko eta haren erabilera bultzatzeko ekintzak eta politikak garatzen ditu.

Zaldibian euskarak bizirik dirau. Etxeko, kaleko, laneko eta aisialdiko hizkuntza da, eta hala izaten jarraitzeko ahaleginak egiten ditugu. Euskarak jasan duen zapalkuntzari aurre eginez, hizkuntza hegemonikoak ez indartzeko erronka dugu esku artean, euskal hiztunen komunitatea indartzeko eta gure arteko harremanak gure hizkuntzan garatzeko, hizkuntza ez dakitenekiko jarrera abegikorrez eta ikas dezaten bideak eta laguntzak eskainiz.



IV. ZALDIBIA, ANIZTASUNEAN PAREKIDE

Aniztasunean eta parekidetasunean sinesten duen herria gara. Gure artean desberdintasunak egonagatik, guzti-guztiori dagozkigu esku-bide eta askatasun berberak, baita betebeharrak ere. Aukera- eta tratu-berdintasuna bultzatzen dugu herriaren aniztasun aberatsaren baitan, elkarrekiko errespetua oinarri, komunitatean bizitzeko eta sistema zapaltzaileei aurre egiteko.

Hala, urte osoan zehar, jarduera eta ekintza ugari egiten ditugu herrian, nazioarteko egunak baliatuz, hainbat aldarrikapen egiteko eta gure eguneroko bizitzan beste ikuspuntu eta balore batzuk txertatzeko.



V. INGURUNE NATURALA ZAINTZEN DUEN HERRIA

Zaldibia mendi eta erreka artean kokatutako udalerrria da, eta bere bizimodua beti egon da naturari hertsiki lotuta, nekazaritza eta abeltzaintzari dagokionez eta baita aisiaren ikuspegitik ere.

Gure lurra eta ingurua maitatzea, eta berau osatzen duten elementuak zaintzea eta arduratsu jokatzea, belaunaldiz belaunaldi transmititu beharreko balioztat daukagu.

Azken hamarkadetan mundu osoan bultzatu diren politikek Klima Larrialdi egoeran jarri gaituzten honetan, ezinbestekoa da giza-garapena eta herrien garapena ingurumenarekin uztartzea.



VI. ZALDIBIA ETA AUZOLANA: GUREA BERRESKURATZEN

Euskal Herriko kulturaren sustraietako bat dugu auzolana edo herri-lana. Herritarrek auzokideen, auzoen edo herriaren alde egiten duten lana da, belaunaldiz belaunaldi transmititu dena. Izan auzoko bidea txukuntzeko, denon zerbitzura egongo den zerbait eraikitzeko edo festa bat antolatzeko.

Helburua adostea eta gutako bakoitzaren denbora eta gaitasunak borondatez helburu horren alde jartzea da auzolana. Zuzenean edo zeharka, bide hau garatuko dugu egun zehatzetarako lan-deialdiak eginez, edo herriko taldeetan herritar ugarik egiten duten lanari bultzada eta laguntza emanez.

Etorri berriak zaretenoi, auzolanaren balioa azaltzeaz gainera, elkarlan honek zuentzat izan ditzakeen alde positiboak hitz egin nahi dizuegu: auzolanak lagunduko dizue herriaren parte izaten eta herrikide sentitzen, eta gainerako herritarrek ezagutzeko aukera paregabea emango dizue, baita herria bera ezagutzekoa ere.



VII. ZALDIBIA, HERRI HEZITZAILEA IZATEKO LANEAN

Herri Hezitzailea herritar guztiak barne biltzen dituen herri-eredu bat da, herriko haur eta gaztetxoek errealitatetik abiatuta.

Herri Hezitzaile bat oinarritzen da jolasa eta sormena ikasteko eta nork bere burua garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haur-kultura** batean. Haurrek parte hartzeko eta erabakitzeko duten gaitasuna onartzea, eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartuz, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, bidezko eta gogobetegarriak josiz.

Egitasmo honen inguruko lan- eta gogoe-ta-prozesu baten ondoren, 2020ko martxoaren 6ko Udalbatzak hitzarmen bat sinatu zuen 'Oinherri: Herri Hezitzaileen sarea'-rekin. Orduz geroztik, abian da proiektua, edonorentzat ateak zabalik.



Azken hitza

Zaindu eta errespetatu dezagun geure burua, inguruko pertsonak eta ingurunea. Horra hor elkarbizitzarako ezinbesteko baldintza, errespetua, elkar ulertzea eta zaintza. Oinarri-oinarrizkoa da bizikidetza antolatzeko herrian ezarri diren arauak errespetatzea, eginkizun eta helburu horixe baitute araudiek.

Aniztasunean oinarritutako herri bat gara. Norberaren askatasuna besteen askatasuna hasten den lekuan amaitzen da. Beraz, Zaldibian ez dugu onartzen eraso sexistarik, homofoborik edo arrazistarik, ezta elkarbizitza oztopatzen duen jarrerarik ere.

Zaldibitarrok baditugu jatorrizko kultura eta herri nortasuna. Kultura eta nortasun hori denboran zehar eraiki, osatu eta koloreztatu da, hainbat jatorritako zaldibitarren ekarpenari es-

ker. Beste kultura eta tradizio batzuen ekarpenak herri gisa aberastu gaitu.

XXI. mendean, euskal kulturaren eta Euskal Herriaren biziraupena bermatuta ez dagoen honetan, gogoan dugu euskal herritarrok gure historian herri migratzailea izan garela eta gure izaerari eusteko eta baita garatzeko ere aukera eman digutela munduko leku askotan.

Horregatik, ongi etorriak izan bitez munduko edozein txokotatik etorritako zaldibitar berriak. Gure herria osatzeko eta eraikitzeko bidelagun izatea nahi dugu, Euskal Herri anitza eta koloretsua eraikitzeko bidean.

ONGI ETORRI ZALDIBIRA!



A stylized illustration of a crowd of people, rendered in dark grey brushstrokes against a light blue background. The figures are simplified, with some showing heads and others just bodies, creating a sense of a large group.

*Ongi etorri
Zaldibira!*



ZALDIBIAKO
UDALA

Santa Fe Kalea 18
ZALDIBIA Gipuzkoa (Euskal Herria)

Tel. (0034) 943 88 03 57
bulegoa@zaldibia.eus

www.zaldibia.eus